

Subjektu garaikidearen arrakalak

Jexux Larrañaga Arriola

Gizarte eta Kultur Antropologian doktorea



Egungo gizarte aurreratuetan, mundu digitalaren agerpen disruptiboak ekarri duen eraldaketa bortitzak bidea egiten dihardu gizarteratze balioan ondutako gizatasun modu bat lausotuz eta ahulduz. Giza bizitzaren alderdi asko, merkatu legearen aginduz, ezari-ezarian, digitalak bihurtu zaizkigu. Gizarte teknodigitalak giza gaitasuna birsortzeko baldintza sozialen testuingurua erabat aldatu du. Gizarte digitalizazioa munduera globalaren leku guztietara hedatuz joan da merkatu interesak hala aginduta, eta prozesu horrek errotik aldatzen du bai hezkuntzarako, bai sozializaziorako, bai identitatea sortzeko giza baldintzen *subjektibotasun ekoizpena*.¹

Subjektibotasuna diogunean zera diogu: gizakia, identitateari eta sozializazioari esker, zentzu-ekoizpen etengabearen birsortzen da munduan eta giza harremanen bitartez egiten da gizaki, talde-kidetasun sentiera eta munduera bere eginda. Izan ere, gizatasun oro giza harremanetan gorpuzturik dago. Gure ustez, hori posible egiten duten sozializazio-baldintza horiek izugarri aldatu ditu egungo gizarte teknokraziak, subjektu teknologikoa eta digitala² birsortzeko moldaeran bizi garenez.

Halaber, gizaki-teknologiek gizaki hobetuaren jomuga ezarian jarri dute, gizakia baldintzatu eta mugatzen duten alderdiak ezabatu nahi eta mugak gainditzeko irrikaz: zahartzea edo hilkortasuna bera gainditu beharreko gaitz sozialak bailiran. Egungo nartzisismoaren kultura logika sozial indibidualista eta hedonistaren arteko gurutzaketaren ondorioan sortzen da, eta sistemak hain ondo egin du bere lana, ezen gizakion baitan sartzea lortu duen, eta, horrela, pentsatzeko modu bat bideratu, hots: eredu neoliberalaren logika kapitalista.

Arrazoimen teknologikoak teknologia berrien bidezko begirada algoritmikoa proposatzen digu. Zientziak muga guztiak gainditu eta dena jakin nahiko luke, eta boteretsuen teknokraziak gu denok ikusgai eta kontrolpean nahi gaitu honezkero. Zer bidegurutzetan gauden ikusirik, ikuspegi sozial eta komunitario batetik ongizate pertsonala eta soziala onbideratzeko, lehentasunezkoa da bestela pentsatzea eta ekitea, gizagintza ororen egitasmoak erabat ahultzera iritsi baino lehen.

Pantailetakoa subjektua

Norbere balioa hezkuntza, prestakuntza, ezagutza, etika eta lan praktika bidez gizarteratutako subjektutik egungo pantailetakoa subjektura

igaro gara. Mundu birtualaren morroi, datuen ekoizle eta kontsumitzaile nekaezinak gara. Alabaina, giza izaeraren harremanen higadura gainbehera doan aroan, subjektu gorputz-esperientziarik gabea ugaldtu egin da, eta pantailen distirak bultzatutako berehalakotasunak bizi gaitu. Subjektu teknodigitalaren mundua pertsonen arteko lotura zuzenik gabea da: subjektibotasun hutsalen³ (Lipovetsky 2015 [1986]) gizarte aroan bizi gara.

Egungo gizarte telegidatueta, hizkuntza eta pentsamendu sakona bazterreko bihurtu ditugu. Egungo gizakiak «mutazioak»⁴ jasaten ditu aurrerapen teknologikoekin dituen hartu-emanen ondorioz. Izan ere, funtsean, teknologia da gu aldatzen gaituena (Echeverria eta Almen-dros 2020). Mundua ulertzeko hitzaren nagusitasuna (gaitasun sinbolikoa) pantailen berehalakotasunak itotzen du. Mundu birtualak eragindako harreman higatuen aurrean, «elkarrizketa onen»⁵ balioa inoiz baino beharrezkoagoa zaigu.

Hitzaren balioa berreskuratzeko premia gorria dugu, kultur garapena sortu, birsortu eta bultzatzen duen indarra baita. Pentsamendua hitzeta-ekarriz eta pentsatzeko moduak idatziz, idaztea bera pentsatzeko modua bihurtuz. Aldiz, sistema neoliberalak inposatu duen subjektu teknologiko eta digitala merkatu legeari lerratu zaio; haatik, pentsamendu abstraktua eta konplexua problematikoa egin zaio. Pantailek garaitutako munduan⁶ (Martinez Peña 2023) merkatua bihurtu dugu bizitzaren benetako ugazaba. Pantailen gizarte telegidatuak inposatu nahi digun gizaki berdinduaren ordaina da.

Hezkuntzarako eraginean, pantailen ordaina alde bikoa da: alderdi linguistikoari dagokionez, diskurtsoaren galera kezagarria da. Pantailaren aurrean egotea, maiz, horma batekin topo egitearen parekoa da: komunikazio-itxuraren azpian, norbanako bakartua dago. Egun, inoiz baino beharrezkoagoa zaigu hezkuntzaren ezagutza esperientziala eta harremanezkoa indarrez sustatzea, bizipenen eta gertaeren bidetik landu beharreko sorkuntzaren kultura behar baitugu bizigai.

Egungo gizarte telegidatueta, hizkuntza eta pentsamendu sakona bazterreko bihurtu ditugu. Egungo gizakiak «mutazioak» jasaten ditu aurrerapen teknologikoekin dituen hartu-emanen ondorioz

Arreta eusteko prozesuei dagokienez, arretaren ahultze progresiboa gero eta nabarmenagoa da. Pantailetan ageri diren estimulu azkar eta aldakorrek arreta etenen eragile dira, hura zatituz eta desegonkortuz. Hezkuntza jarduneko zeregin luze eta sakonetan arreta gaitasuna murriztuz joan da, ikuskizunaren pantailen berehalakotasunaren eraginez. Horrez gain, hizkuntz gaitasuna faktore kritikoa da hezkuntzarako: mintzatzeko gaitasun gutxiago baldin badugu, ez gara hain gizatiarrak izango, sozializazio gaitasuna murriztuz hainbat ezaugarri galtzen direlako, giza beroa eta enpatia, esaterako.

Harreman sozialak eta elkarreragin sakona izatea funtsezkoa da gizakiarentzat. Egungo pantailetako subjektuak oso kontsumitzaile onak izan litezke plataforma digitalaren aroan, baina elkarrekin bizitzeko esperientzia esanguratsuak ordezkatu edota ezabatuz gero, agerikoa zaigu aurrez aurreko bizierak bakarrik eman liezagukeen gizatasun molde baten ahultzeko joeran bizi garela.

Teoria transhumanista

Transhumanismoak izaki hobegarri gisa planteatzen du egungo gizakia, eta, ondorioz, hobekuntza horretarako bidea teknologia goratuz eta jainkotuz dihardu egiten. Aurrerabide lerrobakarraren zientziaren ikuspegi positiboa da. Egungo gizakia bere ahalmen osora iritsi ez den izaki gisa ulertzen denez, teknologia aurrerapenak mugagabe erabiliz gero, gizateriak amesten duen arrakalarik gabeko geroaldia lorgarria izango da.

Gizakia baldintzatzen duten alderdiak ezabatzea edota gainditzea ikuskerara transhumanistaren jomugan dago: sufrimendua, gaixotasuna, zahartzaroa, hilkortasuna bera saihestuz gero, zorionezko geroaldia eskuragarriago izango dugu. Lortzeko dagoen gizaki ziborga (*Cyborg*)⁷ teknogizakiaren bitartez lorgarria izango da, aurrerabide hori gizateria osoaren hoberako izango delakoan. Helburu nagusia, azken buruan, giza izaera bera aldatzean datza, bizi urteak eta existentzia luzatuz aurrena, eta gizaki biologikoaren mugak lausotuz hurrena. Etorkizuneko teknologiak gizakia zein gizateria errotik aldatzeko ahalmena izango duela, hala uste dute transhumanistek.

Zientziaren aurrerapenek guztiz baldintzatuko dute gizakiaren taxua; haatik, baikortasun eta sinesmen osoa izatea beharrezkoa da zientzia positibista garaile irten dadin. Giza izaera bigarren mailako kezka

izatera igaro da dagoeneko, eta gizakiaren neurria materia hutsera izateko kondenepean dago. Giza garuna, lotura neuronal hutsera murrizturik. Zientziaren ideia absolutuak gizakiaren neurri berria jarduera neuronaletara murrizturik behar luke, *erredukzionismo biologikoaren* ikuspegia muturreraino eramanda. Fukuyama (1992) filosofoak transhumanismoa munduko ideiarik arriskutsuenetarikotzat jo zuen, giza izaeraren zapaltzailea eta oztopatzailea delakoan.

Teknologia aurrerabidea egungo gizarte garatuen ezinbesteko osagaia zaigunez, gizarteratzeko merkatuko produktu gisa kontsumitzen dugu. Hala, bada, gizarte teknologien sarbidean egindako urratsek, biztanleriarengan hedatuz eta txertatuz doazen heinean, gizarte bizi-tzaren ia leku guztietan derrigorrezkoak izaten amaitzen dute. Eredu neoliberalak, horrela, sistemari funtzionala zaion gizakien ekoizpena merkatu legearen arabera moldekatzen du. Teknologien kontsumorako bideak pertsonen arteko aldeak, gizarte-klaseen artekoak, arraza edo genero-desberdintasunak areagotzen ditu, gizarte klase aberatsen eta pobreen arteko arrakala handitzeko. Alderdi sozialaren ondorioei begiratuz gero, gizakiaren hobekuntzarako ikuspegi teknozientifikoa soilik aplikatuz gero, gizaki guztien arteko berdintasuna zalantzan dago, eta gizarte demokrataren oinarria galzorian.

Gizaki hobetua

Garapen eredu horren hobekuntzen oinarria bizi garen gizarte globalaren moduarekin bat egitean datza. Izan ere, kapitalismo liberalaren ekoizpen hazkorraren beharrari egungo gizaki 'hobetuaren' beharra erantsi zaio. Baina, zertan datza 'hobeagoa' izango den gizaki hori? Ba al dago lorpen horretarako muga etikorik? Susmagarria izan liteke zahartze-prozesua saihesteko dagoen irrika, giza adimenaren gainetik adimen artifiziala gailendu nahia, edo goreneko adimen horren agindu-pean biziko diren psikismo otzanduekiko axolarik eza.

Hobekuntza horien oinarrian kapitalismo liberalaren interesa dago, zeinari hainbeste arduratzen zaion sistema ekonomikoan ondo txertatuko diren norbanakoen ekoizpena moldekatzea. Sustatzen duen gizaki-teknologien erabilpena, betiere, finantza-eliteen balio nagusiekin loturan sustatzen da, hau da, hazkuntza mugagabearekin eta produktibismoarekin lotuta dagoen kapital logikaren gidaritzapean.

Giza garuna kontrolatzeko aukera ere aztertzen dihardute hainbat zientzialarik. Giza kontzientzia edo nortasun ereduak superordenagailuetara transferitzeko saiakerek erakusten dute hori. Elon Musk⁸ entzutetsua izan zen garunaren eta ordenagailuaren hibridazioaren lotura neuronala arakaturik etekin komertziala ateratzeko egitasmoa burutzen aitzindarietako bat. Baina garunaren mekanizazio hutsal bategen zertan amaitu lezake? Zalantzarik gabe, gizabanako kontzientearen bizitzari amaiera jar liezaioke. Badira garunaren hipokanpoa ikertzen ari diren zientzialariak ere. Giza burmuinean ezagutzak artifizialki sartuz gero, neurona akastunak ordezkatu litezke, eta, mikrotxipak erabiliz, gizaki ziborgaren garapenean urrats berriak eman.

Jadanik gureganaturik ditugun gertuko adibideei erreparaturik gero, teknologiarekin uztarketa Internetekin gertatzen zaigun egunerokoa da. Egungo gizakia fisikoki eta emozionalki guztiz lotuta bizi da Internetekin, eta hori horrela aitortzen eta onartzen dugu. Internet gure gorputzaren luzakin bat bihurtu dugu honezkero, gure izatearen osagai behar-beharrezkoa. Lan tresna izatetik harago, gure nortasunaren parte bihurtu dugu. Egun, pertsona asko bizi da sare sozialetan benetako bizitza errealetik aldendurik. Eskura dugun teknologien mundu birtualean murgilduta jaiotzen diren belaunaldi berriak bi munduen arteko hari bereizle argirik gabe hazten dira mundura, eta dakiguna da inguru-baldintza horiek isolamendu handiagoa eta osasun mentaleko arazo garrantzitsuak eragiten ari direla. Giza harremanen atxikimendu ezak eragindako sakoneko arazoak dira. Eta horrela ikusten ari gara gure eguneroko gizarte bizitzan.

Nartzisismoaren kultura

Lipovetskyren entsegua baliagarria zaigu gaur egungo eramanezina eta hutsalergia aztertzeko. *Hutsaltasunaren aroa* (2015 [1986]) idazlanean, zehaztapen handiz aurreikusitako zituen ordurako aro garaikide teknologiko berri horren ezaugarrietako asko: besteak beste, individualismoa, hedonismoa, nartzisismoa edota mugarik gabeko kontsumoaren gizarte ondorenak. Egun, are eta indartsuago dira joera horiek, individualismoa eta nartzisismoa legitimatu egiten baitira komunikazio teknologien errealitate berrien argitan.⁹ Aldiz, etorkizun kolektibo hobeko baten itxaropena makaldu egin da. Bizitzaren eredu nahieran kontsumitzen den globalizazioaren merkatuan moldekatu

dugu. Garaipen hori arrazoimen teknokratikoaren nagusigoak eka-
rri duen garaipena da. Honezkero, aginte digitalaren mendean bizi
garela esan daiteke, eta, beraz, logika algoritmikoaren gidaritzapean
atontzen dugu gizarte bizitza produktiboa.

Lipovetskyk giza sentimenduen hutsaltasuna eta idealen gainbehera
nartzisismoaren kulturarekin lotu zituen. Egungo giza loturak arinki
hausten dira gizarte idealen axolagabekeriaren zurrumbiloan. Axola-
rik eza indibidualismorako joeraren ifrentzua da. Zoriontsu izateko
nahia bakarkako erosgaia bihurtu zaigu, eta zorionaren betebeharra,
gizarte hedonistaren desiraren gailur.

Egungo izaera digital hauskorrari errentagarria egin zaio indibidualis-
moa sustatzea. Globalizazioaren logika merkantilistak mundu mailako
erosleen identitate aldakorra bultzatzen du, identitate digital lausoak
eta birtualak erabiliz, merkatuaren
logika hazkorrak gehiagorantz egi-
tekotan. Norberekoikeria eta lehia
sustatzen duen sistemak «psikismo
hutsalak» eta «aseezinak» ekoizten
ditu, kapital-metaketa gutxi batzuen
eskuetan neurrigabe pilatuz doan
bitartean: finantza-kapitalen meta-
ketak gidatzen du egungo mundua.

**Egungo izaera digital
hauskorrari errentagarria
egin zaio indibidualismoa
sustatzea. Globalizazioaren
logika merkantilistak
mundu mailako erosleen
identitate aldakorra
bultzatzen du, identitate
digital lausoak eta
birtualak erabiliz**

Egungo nartzisismoa logika sozial
indibidualista eta hedonistaren ar-
teko gurutzaketaren ondorioa da.
Izan ere, sistemak, hain ondo egin
du bere lana, ezen, begira nola,
gizakion baitan sartzea hain erraz
lortu duen, hots: harremantzeko eta pentsatzeko modu estandarizatua
bideratuz, bizieraren eredu hiperkontsumista ezinbestekoa bihurtzeko.

Sistema globalizatzaileak izaki bakartiak eta indibidualismoan ondo
atxikiak behar ditu. Lehiakortasunak eta mozkinen beharrak sortuta-
ko indibidualismoak norbanakoa eredu neoliberalaren menpe uzten
dute bere ibilbide produktiboaren amaieran, biluztua eta bakarrik.¹⁰
Izan ere, irabazirik sortzen ez duen gizakia ez da errentagarria. Ez da
erabilgarria sistemarentzat. Akaso, hil ere egin beharko luke.

Gaurko munduan, zahartzea eta hiltzea ez dago ondo ikusia. Denboraren aurkako lasterketan bizi garelarik, gizakiaren 'betierekotasuna' irabaztea da teknologiak hitzematen digun gailur gorenaren etorkizunari begirako promesa. Lilura erosleen ametsen asegaiz.

Arrazoimen teknologikoa

Gaur, teknologia berriek agintzen gaituzte. Guk, halabeharrez, inposatzen diguten neurri eta erritmora egokitzen joan behar dugu nahitaez, hara nola, teknologiaren begi batek begiratzen eta zaintzen gaitu guztiok (Zuboff 2020). Begirada hori kontrol eta diziplinamenduaren teknokraziaren boterea da, kapitalismo digitalaren agintekeria, zeinak zoru komunitariorik gabeko gizabanakoak behar dituen, noraezaren kondenepean biziko direnak. *Zaintzapeko kapitalismoaren (ibid.)* begirada horren morroi. Gizatasunik gabeko begirada algoritmikoa da. Gu guztiok zelatatzen gaituena.

Zientziak muga guztiak gainditu eta dena jakin nahiko lukeenean, botereak gu denok ikusgai eta kontrolpean nahi gaitu. Eta pantailen lilurak mundua ikuskizun bilakatu du honezkero. Errealitateak eta ikuskizunak bat eginda daude, axolarik ezak irents gaitzan. Etekinaren eta akiduraren norbanakoa gero eta kontrolatuago, ustiatuago, isolatuago eta urduriago dago.

Errealitate birtualak lehentasun berri bat ezarri du, materia eta gorputza lausotuz, mundu mugagabearen eta distiratsuaren promesa. Hots: gu guztiok izaki birtualak bilakatzea. Ageri denez, 'izaki birtualak' gizakiak baino errentagarriagoak zaizkio. Mugarik gabeko munduan, ez dira gaixotzen, zahartzen edota hiltzen. Kontrolagarriagoak dira, akaso. Mundu birtualean, irudiak testuak baino azkarrago kontsumitzen direnean, komunikazio digitala bisuala eta iragankorra da, gizaki globalaren harremanak diren bezalakoak, produktiboak eta interesaren mendekoak. Izan ere, teknokrazia sistemari pentsamendua, diskurtoa eta hitza arazotsuak egiten zaizkio.

Botere teknokratikoak sortutako logika zapaltzailea da. Eta botere digitala, zapalkuntzarako tresna. Pantailari etengabe begiratzea egungo betebeharra bihurtu dugu: sare sozialek aisialdia betetzeko eskatzen duten bezala, edo aginte digitalak lan merkatuan eskatuko dizun bezala. Norbanakoa botere teknokratikoaren agintekeriaren menpe go-

bernatzean datza kontua. Agintekeria digitalaren eta konduktibismo sozialaren aurpegia baino ez da, gu guztion jabea izateko irrikatik elikatzen ari dena.

Errendimenduaren norbanakoari¹¹ (Han 2014) ohikoa egin zaio konektatutako gailuen berehalakotasuna eta erabilera esponentzial eta mugagabea, hots: etekinaren gizartearen kontrol mekanismoa da. Horrela, giza portaera guztiak, datu bihurtu ondoren, usiatu ahal izango dira. Datismoaren logikak¹² gidatzen du erabiltzailearen sareko jardura. Gure bizitzaren kudeaketa algoritmikoa, «jauntxo digitalen» (Echeverria eta Almendros 2020) mendean dago dagoeneko. Botere teknokratikoaren egitasmoa norbanakoen gida algoritmikoarekin osatzen da, eta bizitzaren esparru guztietara zabaltzen da gero. Norbanakoen subjektibotasunak xurgatuz (Merlin 2017) eta mundua homogeneizatuz. Izan ere, gizakia erabat kontrolpean izatea zaie beharrezkoena.

Identitate hauskorrak

Teknokraziaren gizarteak identitate hauskorrak sortzen ditu. Dakarren giza harremanaren hutsaltasunak eta ehun sozialaren gabeziak bi ondorio nabarmen erakusten dizkigu honezkero: bat, pertenezia-sentimenduaren higadura eta, azken buruan, inongotasuna; bestea, bakardade sentieraren areagotzea. Alajaina, bizi garen mundu honetako teknokrazia sistemaren globalizazioak pairamen pertsonal eta sozial larriak sortzen ditu. Muturreko indibidualismoak eta lehiak eragindako bakardadea gure garaiko gaitza bihurtu da, gizarte oparoenen minbizi soziala bailitzan.

Subjektibotasunaren erdigune gisa mugarik gabeko kontsumoa sustatzeak, baina, hutsaren eta ezerezaren deia dakar, eta, nola ez, bakardadearen sentiera areagotzea. Inongotasuna zein bakardadea garaiko bizi ezinaren ondorearen seinaleak dira, pairamen horiek ez baitira norbanakoarenak bakarrik, osagai psikosozial oso altua duten sintoma sozialak ere badira.

Alajaina, gizaki orentzat komunitatearen parte sentitzea beren-berenezkoa da. Eta pertenezia sentimendua giza harremanetan ereiten den hazia da. Taldetasunean egiten da gizakia, kidesuna estimatuz, estimu harremanak biziz, barneratuz, bereganatuz, sentituz. Guztion ongizatearen ardura hartuz gara gizatiarrago. Norbere onura bezain-

Norbanakoaren ongizatea ongizate kolektiboari lotuta dago. Pertsonen arteko harremanek besteentzako baliagarriak eta onuragarriak diren heinean arinduko dituzte egungo pairamenetako asko.

beste, besteen ongizatea ere badago jokoan. Kolektiboaren identitate sentiera, pertenezia sentimenduaren hazia, teknokraziak ezarri duen mundutik harago dago.

Hala ere, egungo kultura indibidualista bereziki itsua da gertaera horren aurrean; baina jaiotzetik aurkitzen duguna gure aurretik bizi izandako hainbat belaunaldiren ekarpenei zor diogu. Izan ere, giza subjektibotasuna beti egituratzen da beste pertsona baten ardura eta

zaintzapean; hara nola, giza izaeraren psikismoaren egituraketan, sozializazioa erdiguneko osagai ezinbestekoena da. Bestela esanda, elkarreraginetik kanpo ez dago gizakirik. Aurrez aurreko sozializazioa, afektuzko loturak, elkar zaintzea osagai beharrezkoenak dira gizagintza mardultzekotan.

Tolesdura subjektiboa

Zer bidegurutzetan gauden ikusita, *tolesdura*¹³ sakonaren aldaketa behar du egungo psikismoen egitura eusten duen zibilizazio patroiak. Izan ere, ikuspegi sozial eta komunitario batetik arituz gero, ongizate pertsonala eta soziala onbideratzeko baldintzak bideragarriagoak izan litezke. Norbanakoaren ongizatea ongizate kolektiboari lotuta baitago. Alajaina, pertsonen arteko harremanek besteentzako baliagarriak eta onuragarriak diren heinean arinduko dituzte egungo pairamenetako asko.

Egungo bizi ezinak sortutako pairamenei aurre egiteko, bestelako *tolesdura* komunitarioa zaigu beharrezkoa. Ondo bizitzea txikirantz eta bertokorantz egitea dela benetan barneratu nahi badugu. *Subjektibitate tolesdura* eguneratu batek erresilientea beharko du izan, bizitza soiltzearen aldekoa, hazkunde material mugagabearen beharrianik gabea. Haatik, giza harremanezko balio sustatzailea, berdinkidea, ekitate zalea, giza lotura indartuko duen ehun soziala estimatuko duena eta bizi dugun aro deshumanizatuaren kontrapuntuan kontzienteki euskarrিতua. Euskarri hori da giza psikismoaren loraldi humanizatzailearen ernamuin bat.

Alajaina, arlo pertsonalean jasandako pairamenak dimentsio sozial agerikoa duten pairamenak dira. Ez dago bakarkako sendabidezko aterabiderik, mugaz haragoko nahimenari galga jarri ezean baino. Norberaren etengabeko optimizazioa (Koplotek 2018) bilatzen duten egungo subjektibizazioen aurrean neurria hartu ezean baino, zeren subjektibotasun neoliberal horiek baitira egungo gizarte gaitzei mai-zen lotzen zaizkienak. Haatik, sortzen dituzten ondorioek pairamen horien areagotzea dakarte.

Gaur, norberaren egia subjektiboa bilatzen duten subjektuak behar dira, eta ez boteretsuen teknokraziak behar dituen norbanako auto-matak. Norberaren bizitzan eragiletza dutenak, eta, aldi berean, gizarte-ehuna, komunitatea, espazio kolektiboa, berreraikitzen parte hartzera deituak direnak. Pertenentzia sentieraren hazia ondo ernalduz gero loturazko harreman sendoak eta sustraituak ernaltzen direlako, gerora gizarte-ekarpen burujabeen lora daitezten.

Gaur inoiz baino gehiago, eraldaketa ez dago bakarrik norberarengan, ezta mundua ikusteko eran, hots: aldaketa munduan bertan dago. Haatik, horrek sortzen duen ezinegona, ezjakintasuna eta batez ere ondoeza gai pertsonal gisa pentsatzeari utzi behar zaio. Sufrimendua pribatizatu beharrean, loturarik eza, inongotasuna, bakardadea..., besteak beste, pairamen kolektibo eta sozialak dira, gaur egunean, osagai politiko eta sozial sakona duten gertakari emozional garaikideak, norbanakoen neurriaren gainetik ehuntzen diren teknokraziaren arrakalak, eta, ondorioz, subjektu garaikidearen arrakala sintomak.

Egungo gehiegikeriaren gizarteak ondoezaren elaborazio kolektiboaren beharra dauka. Giza loturen aldeko apustu irmoa eginda. Komunitate ehuna berrindartzeko. Harreman dentsitatea trinkotuz, lotura sozioafektiboak estutuz, aldaketa pertsonala ez ezik, taldetasunaren norabide berriak zertuz. Bestela amiltzera bidean doan aroa itzulikatuko badugu.

Ondoezaren elaborazio kolektiboak zera eskatzen digu, hots: egungo pairamenak beste bide batetik lasaitzekoak direla ondo ulertzea. Hau da, gizartea zein norbanakoa hobetzeko bidea, edozein ordainetan egindako aurrerabideari itsuki jarraitzean baino, hazkunde mugagabeari uko egiteko jarrerari datza. Hori izan daiteke balio handiko komunitate ernamuin bat, alegia, txikiagorantz eta hoberantz egiteko

bidea urratzea, gertuko eta aurrez aurreko harremanen zaintzan sakonduz, *bestela pentsatuz*, *bestela ekiteko* (ikus Agirre 2023), edo, bestela ekinez, bestela pentsatzeko.

Alajaina, gizaki hobetua, gorena, perfektuena, ahaltzuena, mugarik gabea izateko nahimen mugagabea *gainbeheratzean* datza tolesdura komunitario berriranzko euskarririk sendoena. Hori baita desioa birbideratzea edo psikismoen tolesduraren aldaketa sakonekoa, hots: desiragintza komunitario berri bat sortzea, akaso.

Zalantzarik gabe, zibilizazio patrioiaren tolesdura aldaketak zerikusi handiagoa du handitasun-eldarnioa alde batera uztearekin, salgai jartzen diren kontsumo gizartearen nahikeria guztiak eskuratzeko dugun irrika aseezinarekin baino.

Ondorioa

Jakina da ezin ditugula teknologiarekin batera ezinbestean datozen aldaketak saihestu. Ezta jarrera guztiz teknofoborik izan ere. Halere, bizi dugun garaiarekin kritikoak izatea dagokigu. Egun, beharrezkoa bezain garrantzitsua da erredukzionismoa saihestea eta giza izaeraren nahia berreskuratzea, mundurako handinahikeriak gizateria desagerpenaren arriskuan jarri aurretik. Lehenik eta behin, giza eta gizakiaren izaeraren kontzeptua lausotzea kezkarria zaigu, gizakiaren ulerkera materia hutsalera bihurtzen duelako. Zientzia eta teknologiararen ikuskera horrek gizakiaren alderdi biologiko soila lehenetsiko badu, norbanakoa neurona loturetara murriztuz joango da ordezkagarria bihurtu arte.

Alabaina, teoria transhumanistan, norbanakoaren errealitate pertsonala ezabatu egiten da. Giza izaeraren duintasuna salgai jartzen. Baina gizaki izateagatiko duintasuna ezin liteke soilik botere teknokratikoaren esku utzi. Hori auzitan jarriz gero, zalantzarria da aurrerapen bioteknologiko ororen ikuspuntuitsuak gizakia 'hobetzea' esan nahi ote duen. Hemen auzitan jarri dugu garapen eredu hori. Ezin dugulako hobekuntza zentzu hori termino material eta biologikoetan soilik ulertu. Azken batean, hobekuntza teknologikoaren mugak eta arauak zeinek ezartzen dituen dago hemen jokoan: elite baten pribilegioak zaintzen dituen finantza-botereak, merkatuaren interesak edota teknokrazia sistemen zapalgailuak. Jakinekua baita horiek guztiek eredu neoliberal indartu baino ez dutela egiten.

Laburbilduz, aro garaikideak, humanismo duinago baterantz egin beharrean, gizatasunaren ahultze progresiborantz garamatzala azaldu dugu. Izan ere, bizi dugun gizarte aroak helburu desiragarri batzuk eskaintzen dizkio giza espezieari posthumanitate perfektuenera iristeko lilura hutsalaren truk. Izan liteke gizakiaren alde zaurgarria eta hauskorra ezabatzeko, akaso, liluratzen duen gizaki perfektu, zoriontsu eta ahaltsuaren iruditik asko aldentzen delako, baita egungo gizarte aroan errentagarria ez izateak baliorik ez duelako ere. Edonola, gizakia izateagatik duintasunak identitate premia euskarritzeko funts antropologiko indartsua beharko du. Gizagintza ororen egitasmoak guztiz ahuldu baino lehen.

OHARRAK

1. Subjektibizazio ekoizpena gizarte modu batekin loturan ulertu behar dugu. Egungo subjektibizazio modua subjektibizazio neoliberala da. Foucaulten tradizioari jarraiki, neoliberalismoa nagusitutako ordena razionala da, bizitzaren ordena desberdinak bereganatzeko ahalmena du, subjektuaren bizitzaren modurik intimoena antolatzerira iritsiko da. Gaur egungo gizartea promesa neoliberal batek arautzen du; bizitzaren jarduera liluragarrian, subjektuen izaera baldintzatu eta eratzen du. Neoliberalismoaren promesa errendimendu logikan gauzatzen da, non subjektuak norberaren balioa metatzeko borondatea bizi duen mandatu neoliberalaren mendekotasunean. Horrela ekoizten da funtzionala zaion psikismoen eraketa.
2. Subjektu digital bati buruz hitz egiten badugu, haren errealitatea eta identitatea identifikatu behar dira. Gaur egungo giza harremanak sistema teknologiko konplexuen mende daude, eta horrek bai errealitateaz eta bai identitateaz ulertzen dugunaren gaineko erabateko aldaketa dakar. Ingurune birtualak nagusitzen dira, non pentsamenduak eta ekintzak egituratzen diren subjektuak eraldatuz. 'Tekno' aurrizkiarekin, sistema teknologiko konplexuen mende gaudela adierazten dugu.
3. Indibidualismo garaikidean, gizaki moderno, mendebaldar, hegemoniko eta nartzisistaren hutsaltasuna ageri da, non indibidualtasunaren eta zorion neoliberalaren bilaketa etengabe, unean uneko eta azalekoa lehenesten den, asebetetze pertsonala baino bilatzen ez den.
4. Mutazioa hitzaren zentzu antropologiko-sozialean erabili dugu. Gizartearen digitalizazioa eta teknologiaren nagusigoa mutazio antropologiko horien parte eta eragile dira. Jorge Alemánek (2016) azaldu duenez, neoliberalismoa subjektibotasun berriak sortzen ari da, gizarte-harremanetan, besteekiko harremanetan, norberarekiko harremanetan bizitzeko moduei dagokienez. Benetako *mutazio antropologikoak* dira. Eraldaketa horiek neoliberalismoaren abiadurarekin lotuta daude.

5. Mariano Sigmanek (2022) hitzaren eta elkarrizketa onen balioa azpimarratzen du bere liburuan. Zera proposatzen du gizakiaren kognizioan huts askoren soluziobide gisa: elkarrizketa onak izatea da bidea, elkarrizketa adimentsuak sustatuz. Bere liburuan, elkarrizketa pentsamendu-tresna gisa aztertzen du, oharkabean egiten ditugun hutsak identifikatu eta elkarrizketak pentsamendua bideratzen betetzen duen funtzioari balioa emanez.
6. *Pantailen garaipena. Begiradaren totalitarismoaren kontra* saiakeran, dena inguratzeko duen begirada algoritmikoa sakon aztertzen du Martinez Peñak (2023): bideokamerak, sateliteak, eskanerrak, biltegi zibernetikoak, smartphoneak eta abar. Ikusezinaren alde erresistentzia bideak pentsatuz.
7. Espainiako Errege Akademiaren definizioaren arabera, ziborga materia biziz eta gailu elektronikoz osatutako izakia da. Zentzu orokorrean, ziborg hitza erdi organiko eta erdi mekaniko diren izakiei esateko erabili da. Ziborg Fundazioa (*Cyborg Foundation*) gizakiak ziborg bihurtzeko soilik bideratutako errealitate gisa sortu zen, zientzia zibernetikoaren bidez beren zentzumenak zabalduz joan zitezkeen. Haren zeregina teknologia sortzea da, ez erreminta gisa, baizik eta gorputzaren aplikazio gisa, protesien estilora. Fundazio horretan psikologoekin eta neurologoekin lan egiten dute, giza gorputzean 'hedapen' horiek sartzeko eta portaeraren ikerketan aurrera egiteko.
8. Elon Musk OpenAI enpresaren bazkide entzutetsua da. Erakundea irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa sortu zuen hasieran, baina 2019an enpresa hibrido bihurtu zen, etekinak errentagarri egiteko. Haren proiekturik nabarmenetako batzuk hauek dira: ChatGPT, ikusi, entzun eta hitz egin dezakeen chatbota (hizkuntza eredu); DALL-E 3, testu-deskribapenetatik abiatuta irudiak sor ditzakeen irudi-eredua; GPT-4, haren lengoia-eredu aurreratuena eta gaituena duena. Horrez gain, robot humanoidearen prototipoa (Optimus) ikertzen dihardute: giza itxura hartzen duen robota ahalik eta salgarriena izateko helburuarekin ari da sortzen.
9. Sareen nartzisismoa mugara eramanda, gero eta *like* gehiago lortzea bihurtu du helburu; sareak, ordainetan, subjektibotasunean duen eraginaren ondorioz, norbanakoen portaera eta hautuak moldatzen ditu, betiere kapitalismo neoliberalaren interesen mesedetan.
10. Horrek guztiak zentzu individualista are eta gehiago elikatzen du, subjektua kapitalismo neoliberalaren menpe bakarrik utzirik, irteerarik gabeko amaraunean. Horren erakusgarria da etengabe zorpetutako subjektua, non boterearen logikak eta kontrol sozialak denborarekin eta etorkizunarekin lotzen duen bizibeharra, bizitza osorako zorpetuz. Zorra gizarte bizitzaren sakrifizio ordaina bihurtuz, bizitza osoan zorpetuta bizitzeko.
11. *Psikopolitika* (Han 2014) zapaltzaileak botere seduktorea erabiltzen du, eta, ondorioz, gizabanakoa menderatze sarearen menpe gelditzen da. Psikoboterea ezartzen da horrela. Gizabanakoak aske dela uste du, baina sistema da hura gehiegikeriaz ustiatzen duena. Horren adibidea da *big data* eta milaka erabiltzailek sare sozialetan arinkeriaz isurtzen dituzten datuez jabetzen diren transnazional handiak. Sarean zabalduetako ustezko adierazpen askeak hiperkomunikazioaren erabateko kontrol eta zaintza bihurtzen dira, askatasunaren benetako krisia dakarte. Norbanakoa kontsumo-objektu bihurtzen da, zeinaren datuetatik eta intimitatetik irabaziak ateratzen diren.
12. Dataismoa dadaismo digital bezala agertzen da. Zentzuzko egitura bati uko egiten dio. Hizkuntza zentzuz husten du. Bizitzako gertaerak ez dute ez ha-

sierarik ez amaierarik. Dena modu hutsalean gertatzen da. Horregatik, dena berdina da. Datuek zentzu-hutsunea betetzen dute.

13. Subjektibotasunaren esparruan, errealitateari buruzko hainbat diskurtso eta ikuspegi biltzen dira, baita boterea menderatzeko estrategiak eta dauden kontrol egituren aurreko erresistentziak ere. Subjektibotasuna, beraz, kanpoko lekurik barnekoena da. Sozialki, gizarte baten gozamen inkontzientearen asal-durak haren eldarnioetan atzemangarriak dira: hazkundera, teknologia, materialismoa, kontsumismoa... edozein ordainetan.

BIBLIOGRAFIA

- Agirre, L. (2023): 'Bestela pentsatu bestela ekiteko. Gizagintza eta mundugintza bizigarri baterako', *JAKIN* 256/257, 165-172.
- Alemán, J. (2016): *Horizontes neoliberales en la subjetividad*, Grama.
- Arendt, H. (2016): *La condición humana*, Paidós.
- Desmurget, M. (2020): *La fábrica de cretinos digitales*, Península.
- Echeverría, J.; Almendros, L.S. (2020): *Tecnopersonas. Cómo las tecnologías nos transforman*, Trea.
- Friedrich, Sebastian *et al.* (2018): *La sociedad del rendimiento. Cómo el neoliberalismo impregna nuestras vidas*, Katakarak.
- Fukuyama, F. (1992): *El fin de la Historia y el último hombre*, Planeta.
- Han, B.-C. (2014): *Psicopolítica. Neoliberalismo y nuevas formas técnicas de poder*, Herder.
- Ibarra Ibáñez, A.N. (2020): 'Neoliberalismo y subjetividad. El nuevo malestar', *Revista de Psicología* 20(2), 155-166. <https://doi.org/10.24215/2422572Xe074>
- Koplotek, F. (2018): 'On Time Run. Siempre en ruta, sin llegar nunca, recorriendo la zonas de la optimización de sí mismo', in Friedrich *et al.* (2018), 97-122.
- Lipovetsky, G. (2015): *La era del vacío. Ensayos sobre el individualismo contemporáneo*, Anagrama.
- Martínez Peña, I. (2023): *Pantailen garaipeña. Begiradaren totalitarismoaren kontra*, Elkar.
- Merlin, N. (2017): *Colonización de la subjetividad. Los medios masivos en la época del biomercado*, Letra Viva.
- Orberst, U.; Azkarraga, J. (argk.) (2023): *Afán de poder. Sociedad, salud mental y educación desde una visión actual de Alfred Adler*, Herder.
- Sigman, M. (2022): *El poder de las palabras*, Debate.
- Zuboff, S. (2020): *La era del capitalismo de la vigilancia*, Paidós.